

A.3 DOKUMENTUA

PLAN BEREZIAREN HELBURUAK ETA ANTOLAKETA PROPOSAMENAREN OINARRIAK

AURKIBIDEA

1. Kapitulua	HELBURUAK ZEHAZTEKO IRIZPIDEAK	1
2. Kapitulua	PRESIOEN ETA INPAKTUEN ANALISIA	3
2.1.	UROLAREN ESTUARIOAREN ERABILERAREN ETA PAISAIAREN EBOLUZIOA.....	3
2.2.	A.M.I.A. ANALISIA	14
3. Kapitulua	HELBURUAK ETA ANTOLAKETA PROPOSAMENA.....	19
3.1.	JARDUKETA-ILDOAK ETA KALITATE HELBURUAK	19
3.2.	XEDE IRUDIA	20
3.3.	ANTOLAKETA PROPOSAMENA: ZONAKATZE XEHATUA	23
3.4.	UDAL HIRI PLANGINTZAREN ZONAKATZEAREN ANALISIA ANTOLAKETA PROPOSAMENARI DAGOKIONEZ	32

IRUDIEN ZERRENDA

1. Irudia Xede irudia.
2. Irudia Plan Bereziaren mugaketa aukerak.
3. Irudia Zonakatze xehatuaren proposamena.

ARGAZKIEN ZERRENDA

1. Argazkia 1954ko irudia.
2. Argazkia 1969ko aireko argazkia.
3. Argazkia 1983ko irudia.
4. Argazkia 1991eko irudia.
5. Argazkia 2001eko irudia.
6. Argazkia 2011ko irudia.
7. Argazkia Artadi herrigunea (1954).
8. Argazkia Artadi herrigunea (2011).
9. Argazkia Santixoko padurak (1983).
10. Argazkia Santixoko padurak (2011).
11. Argazkia Santixo hondartzaren egoera (1983).
12. Argazkia Santixo hondartzaren egoera (2001).
13. Argazkia Santixo hondartzaren egoera (2011).
14. Argazkia Beduako kaia eta lonja. Urtea ezezaguna.
15. Argazkia Bedua inguruko irudia 1954.urtean.
16. Argazkia Bedua inguruko irudia 2011.urtean.

INFORMAZIO ETA ANTOLAKETA PLANOEN ZERRENDA (E DOK. PLANOAK)

Plano zk.	Mota	Mota
13	Xede irudia	Informazioa
14	Zonakatze xehatua	Antolaketa

1. Kapitulua HELBURUAK ZEHAZTEKO IRIZPIDEAK

Udal Plangintzarako tresna guztiek bezala, Plan Bereziak estatuko arloko legiazioa zein Autonomi Erkidegoko esparruan behin betiko onarpena duten lurralde antolaketarako tresnak errespetatu behar ditu.

Testuinguru horretan, gogoan hartu beharra dago, oraingo Plan Bereziak antolatutako zatirik handiena Natura 2000 Sareko "Urolaren itsasadarra" Kontserbazio Bereziko Eremuarekin (KBE) bat datorrela. Plan Bereziak bere egin ditu Atlantikoko eskualde biogeografikoko ibai eta itsasadarretarako KBEn ezarritako habitat, animalia eta landareen kontserbazioarekin zerikusia duten helburu nagusiak; honako hauek dira:

- 92/43/EE Habitaten Zuzentarauaren I. eranskinaren barnean dauden habitaten kontserbazio egoera ona mantendu edo berreskuratu.
- 92/43/EE Habitaten Zuzentarauaren IV. eranskineko espezieak babestu eta haien kontserbazio egoera ona berreskuratu, baita V. eranskineko espezieena ere.
- Kontserbazio Bereziko Eremuan dauden kontserbaziorako elementuen iraunkortasuna bermatu, batik bat kontserbazio egoera eskasa, azalera txikia edo joera negatiboa duten horien.
- Euskal Autonomia Erkidegoan Natura 2000 Sarearen barne koherentzia eta koherentzia orokorra ziurtatu, lotura ekologikoa bermatzen duten paisaiaren elementuen funtzionaltasuna mantenduz eta berreskuratuz.
- Eskualdean interesa duten landare eta animalia populazioen eta habitaten baldintza naturalak mantendu edo berreskuratu, KBE bakoitzaren berezitasun zehatzak kontuan izanik.
- Kontserbazio Bereziko Eremuan dauden elementuen jarraipena egin eta zaintze-lanak bermatu.
- Natura inguruneke ustiapenekin harremana duten herritarrak informatu eta hezi KBEn balio ekologikoen, kontserbaziorako helburuen eta horiek lortzeko beharrezkoak diren neurrien inguruan.

Bestalde, Plan Berezia izanik, indarrean dagoen plangintza orokorraren mende dago [Getaria, Zumaia eta Zestoa Udal Plangintzarako Arau Subsidiarioak], eta, beraz, proposatutako eremua antolatzen duten irizpideek bat egin behar dute dokumentu egituratzaile horiek ezartzen dituzten antolaketarako irizpideekin; zentzu horretan, Plan Bereziak onartu behar ditu landa lurzorua antolatzeko plangintza nagusiak ezartzen dituen oinarri orokorrak, besteak beste:

- *Lurraldearen balio ekologikoen, zientifiko-kulturalen, paisajistikoen eta ekoizpen balioen kontserbazioa bermatu.*
- *Jarduera desegokien ondorioz andeatutako elementu eta ingurumen prozesuak hobetu, berreskuratu eta berrezarri.*
- *Gutxiegi erabiltzen diren baliabide naturalen ustiapena hobetzeko beharrezkoak diren jarduketa ildoak sortu.*
- *Landa garapenari lagundu baliabide naturalen antolamendu egokiaren bidez, horien erabilera iraunkorra sustatuz, eragile desberdinen adostasuna eta partaidetza bermatuz eta baliabideen aisialdirako ahalmena erabiliz.*
- *Lurralde ingurumenaren egoeraren berri emateko informazio sistemak ezarri, martxan dauden ingurumena babesteko ekintzak aldatu edo zabaltzeko.*
- *Bedua landa herrigunea eta bere inguruko paisaia babestu eta zaindu.*

Helburu orokorrak aipatuta, komeni da horiek lortzen, ala ez lortzen, lagun dezaketen elementuak aztertzea; azterketak lagungarria izan beharko du ezarriko den jarduketa-ildo bakoitzaren berariazko helburuak finkatzeko. Xede horrekin, jarraian datorren kapituluan eremuaren diagnostikoan azpimarratu diren aukera, mehatxu, sendotasun eta ahuleziak azalduko dira.

Atal horri hasiera emateko, eremuko paisaiak azken hamarkadetan izan duen eboluzioa aztertuko da, natura ingurunearen eta lurralde gizatiartu hori sortu eta erabili duen populazioaren arteko interakzio historikoaren isla diren zenbait elementu agerian utziko dituen.

2. Kapitulua PRESIOEN ETA INPAKTUEN ANALISIA

2.1. UROLAREN ESTUARIOAREN ERABILERAREN ETA PAISAIAREN EBOLUZIOA.

Azken hamarkadetan eremu honetan egin diren erabileren eboluzioaren azterketa egin da, Urolaren itsasadarreko paisaia eraldatu duten faktoreak hobeto ulertzeko, eta alde zuzenetik ezarritako helburuak bideratzen edo oztopatzen lagun dezaketen erabilerekin eta jarduerekin gehiago jakiteko asmoarekin. Lan horretarako Gipuzkoako Foru Aldundiaren *Datu Espazialen* Azpiegituraren web orrian (web 1:5.000) eskuragarri dauden eremuko argazkiak aztertuta, 1954, 1969, 1983, 1991, 2001 eta 2011. urteetako argazkiak eta 1969ko aireko argazkia, hain zuzen ere.

Urolaren estuarioak ingurunea historian zehar bereizi izan duen landa izaeraren ezaugarri nagusiak mantendu ditu, nahiz eta elementu naturalak edo erdi-naturalak gordetzen dituzten esparruak nabarmenki murriztu diren.

1954ko argazkian nekazaritza eta basogintzako erabilerak gailentzen dira. Azalera txikiko lursail eta baratzak itsasadarreko meandro eta ertzetan banatzen dira; horiek estuarioaren parte ziren garai batean ('Basadiak'), baina gero lehertu eta landatzeko prestatu zituzten. Azterketa eremuaren zati handi batean, babeserako egiturak ageri dira itsasadarreko ertzetan, landaketak uholdeen eraginez babesten dituztela eta, tarte batzuetan, ibai-basoa erabat ordeztzen dutela. Beraz, esan daiteke, garai hartan estuarioko urak hartutako azalera ia bat datorrela gaur egungoarekin.

Orain mende erdia, basoek eremu malkartsuagoak okupatzen zituzten, nahiz eta ikus daitekeen estalitako azalera orain betetzen dutena baino nabarmen txikiagoa zela. Leku batzuetan, garai hartako ateratze jarduerak sortutako kalteak ikus daitezke, Artadiko (Floresko harrobia) mendi-hegaletan, esaterako. Santixoko padurek, aldiz, azalera handia hartzen dute, garai hartarako Zuloagako lursaila dagoeneko okupatuta egon arren, padura iparraldetik mugatuz, eta estuarioaren ezker alde osoa urbanizaturik bazegoen ere, itsasadarraren kanalizazioaren eta kai berrien bitartez.

Egungo paisaia 1969ko aireko argazkikoan agertzen denaren antzekoa da, eta ez da paisaian eragin dezakeen lurren erabilerarik edo inolako beste elementurik nabari. Balenziaga Ontziolak okupaturiko azaleraren handiagotzea sumatzen da, baita basoen hedapena ere, zenbait eremutan.

1983ko argazkian A-8 autobidea ikusten da. 70. hamarkadan eraiki zen ikusizko eragin handiko elementu lineal horrek Urolaren estuarioko paisaia behatzeko puntu berria ezarri zuen. Azpiegitura horren eraikuntzak eta jasandako zirkulazioaren hazkunde esponontzialak, babestutako eremuan eragina duten bigarren mailako efektuak ekarri dituzte, besteak beste, soinu kalitatearen galera interes bereziko hainbat lekutan.


Azpiegitura berri hori eraikitzearekin batera Gorostiagako meandroa betetzeko jarduketa burutu zen, eta ondorioz, jatorrizko lurzoruen batez besteko kota 5 metro igo zen. Jarduketa horrek Plan Bereziaren eremuko barne paisaia aldatu zuen eta meandro inguruko nekazaritza eremu guztien ezabapena ekarri ere. Irudian, bestalde, gaur egun Basusta ibarra okupatzen duten industria garapenaren hasierako urratsak antzematen dira ere. Azpiegitura bi horien garapenaren ondorioz ibarretako landa paisaia eraldatzen hasi zen eta estuarioan landa ezaugarriak ez zituzten giza elementuak sartzen hasi ziren.

Urolaren itsasadarraren egoera 1991ean ez da asko aldatzen 1983. urtean deskribaturikoaren aldean; Basustako industria garapenak 1983an hartutako azalera bera mantentzen da eta, gaur egun, J.M. Korta industrialdea dagoen lekua eraikinik gabe jarraitzen du. Urolaren estuarioko paisaian gailentzen diren erabilerak nekazaritza eta basoen ustiapena dira, gehienetan nahastuta azaltzen direla. Padura eta

hondartza eremuak ere garrantzitsuak dira, gaur egun Santixoko ingurunean okupatzen duten azalera baino txikiagoa izanik, Zumaiaiko kirol portua eraiki gabe baitzegoen.

1991tik 2001era arteko aldia, Urolaren estuarioko pasaia nabarmen eraldatu duten lanak egin ziren. Garai horretan Urolako bokaleko kai-muturraren handiagotzea burutu zen, zeinak azpiegituraren ikusizko eragina areagotu baitzuen; Santixoko eremuan Zumaiaiko kirol portua eraiki zen ere, bertan zeuden padurak desagerrarazi zituen. Ekintza bien ondorioz, padurak eta hondartzak osatutako paisaia erdi naturala giza elementuak nagusi diren paisaia bihurtu zen. Halaber, garai horretan, J.M. Korta industrialdea eraiki eta Basusta industrialdearen azalera handiagotu zen, hartara, Urolaren estuarioan barne giza elementu berriak sartu ziren, inguruneke paisaiaren kalitatea okerragotuz.

2001. urteko irudiak gaur egungo egoerarekin antza duen paisaia erakusten du. Ez da hirigintza edo industria garapen aipagarriarik izan, ezta paisaian ikusizko eragin nabarmenik izan duen azpiegitura berririk eraiki ere. Zentzu horretan egin den jardute ohargarri bakarra Basustako ur hondakinen araztegia (EDAR) eraikitzea izan da, estuarioko uren kalitatean isurketen ondorioak arintzen lagundu duena. Estazioa eremuko industria guneen aldamenean kokatzen da, hortaz, ez du eragin handirik inguruko paisaian, bai, oster, landa eremuaren murrizketa gehigarrian.



1. Argakia 1954ko ortoargakia. Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia (web 1:5.000).



2. Argakia 1969ko aireko argakia. Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia (web 1:5.000).



3. Argazkia 1983ko ortoargazkia. Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia (web 1:5.000).



4. Argazkia 1991eko ortoargazkia. Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia (web 1:5.000).



5. Argazkia 2001ko ortoargazkia. Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia (web 1:5.000).



6. Argazkia 2011ko ortoargazkia. Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia (web 1:5.000).

Azken hamarkadetan eremuko paisaiaren garapena gorabehera, estuarioko zenbait lekutan paisaiaren eraldaketa nabarmenagoa izan da, erabileretan eta jardueretan edota intentsitate mailan izandako aldaketak direla eta. Jarraian eremuko lekurik aipagarrienetan izandako lurren erabileraren eboluzioa eta paisaiaren aldaketa aztertuko da.

2.1.1. Artadi

‘Artadi’ inguruko mendi-hegalak estaltzen dituen arteen basoak ikusizko kalitate handiko paisaia eratzen du. Artadian argi antzematen dira historian zehar egindako ustiapenen aztarnak – egurrarena gehienbat–; horien ondorioz, arteek itxura txikia, oso antzeko garaiera eta egitura berezia dute, hurrenez hurrengo anduien ernaberritzeek eraginda.

Ustiapenok desagertzen joan dira azken hamarkadetan zehar, paisaia isla argia utzita. 1954ko irudian artadiak gaur baino azalera eta dentsitate txikiagoa duela ikusten da. Ustiapenak alde batera uztearekin, artadiaren estaldura progresiboki hobetu da, 1991eko irudian ikusten den bezala. 1954ko irudian ateratze jardueretara xedaturiko hainbat eremu ikus daitezke; horien aztarnak ikusgai dira oraindik, era naturalizatuagoan bada ere.

Artadiko San Migel herrigunea Plan Bereziak antolatzen duen eremutik gertu dago eta karga historiko eta kultural handiko herria da. 1954tik gaur egunera, herriak ez du aldaketa handirik jasan eta landa ezaugarriak mantendu ditu. Hala ere, hasi berriak diren urbanizazio bat eraikitze lanen eraginez, paisaia erabat aldatuko da, bereziki Artadi herriguneak duen kokapen nabarmena kontuan izanik, Plan Bereziak hartzen duen gune ugartik ikusgai izango baita.



7. Argazkia Artadi herrigunea (1954).
Iturria: 1954ko ortoargazkia, web 1:5.000
Gipuzkoako Foru Aldundia.



8. Argazkia Artadi herrigunea (2011).
Iturria: 2011ko ortoargazkia, web 1:5.000
Gipuzkoako Foru Aldundia.

2.1.2. Santixo

Zumaiako kirol portuaren eraikuntzak eta Urola bokaleko kai-muturraren handiagotzeak eraldaketa nabarmena eragin dute Santixo ingurunean, izan ere, balio ekologiko handiko padura zati bat galdu eta paisaia-balio txikiko hiri-elementuez ordeztu da, hirigunea eta inguru naturalaren artean dagoen eremuan. Handiagotu zutenetik kai-muturra —itsasoan barne sartzen den azpiegitura— nabarmen ikusten da herrigunetik, ikusizko inpaktu handia eraginez.

Historian zehar, Urolaren itsasadarrek gizakiaren jarduera pairatu du, bereziki itsasoari azalera ('basadiak') irabazteko babes-eraikuntzen ondorioz. Aitzitik, Santixoko padurak eraikuntza jardueren eraginetik urrun mantendu ziren hamarkadatan zehar, haien funtzio ekologikoak eta azalera mantenduz. Ontziolak okupatutako eremu txikiaz gain, padurako azalera okupatu aipagarriena 1997an eraiki zen kirol portuarena da. Jarraian agertuko diren irudietan Santixoko padurak jasan dituen aldaketak ikus daitezke, kirol portua eraiki aurretik nolakoa zen, ondorengo azalera eta egoera orokorraren eboluzioa.

Bestalde, azpimarragarriak dira ere ibaia bideratzen duen kai-muturraren handiagotzeak eragindako efektuak. Ikusizko eraginaz gain, azpiegituraren handiagotzea Santixo hondartza jalginez betetzea eragiten ari da, hartara, azken urteotan, hondartza Orruagarantz hedatzen ari da. Ondorengo orrialdeetan Santixo hondartzak 1983an (kai-muturra handitu aurretik), 2001ean (kai-muturreko lanak burututa) eta 2011n zuen azalera ikus daiteke.



9. Argazkia Santxoko padurak (1983). Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiaren web orria (web 1:5.000).




10. Argazkia Santxoko padurak (2011). Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundiaren web orria (web 1:5.000).



11. Argakia Santixo hondartzaren egoera (1983).
Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. (web 1:5.000)




12. Argakia Santixo hondartzaren egoera (2001).
Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. (web 1:5.000)



13. Argakia Santixo hondartzaren egoera (2011).
Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. (web 1:5.000)

2.1.3. Bedua eta J.M. Korta industrialdeko ingurua

Bedua auzoan lonja eta zergak kobratzeko “errenteria” zeuden, Urolaren arroko burdinola guztien portu nagusia zela. Baina XIX. mendearen bukaeran (1884an) eraiki zuten burdinazko zubiak ibaian gora itsasontzien bidea oztopatu zuenetik, Bedua portuko jarduera ekonomikoa bertan behera geratu zen.



14. Argazkia *Beduako kaia eta lonja. Urtea ezezaguna.*
Argazkia: Iñaki Linazasoro (Iturria: Auñamendi Eusko Entziklopedia)

Haren lekuan Uriarte Zubimendi & Cia zementu fabrika eraiki zuten, 1907. urtean. Lantegia 1972an itxi zuten, A-8 autobideko eraikitze lanek labeen instalazioaren zati bat eta harrobia bera okupatu baitzuten. Beduako eremuak ez du paisaia-aldaketa nabarmenik pairatu lantegia itxi zenez geroztik. Gaur egun, lantegiaren aztarna utziak baino ez dira gelditzen eta eta Beduako uhartean landa erabilera da nagusi. Egun antzinako lonjaren eraikina ostalaritzara xedaturik dago. Hala eta guztiz ere, eremuak kanpo eragin paisajistiko nabarmenak jasan ditu azken hamarkadatan, bereziki, A-8 autobidearen eraikuntza, Gorostiagako betetze lanak eta Urola itsasadarreko eskuineko ertzean, Bedua auzo parean, J.M. Korta industrialdearen eraikuntza direla eta. Aldaketak jarraian erantsitako irudietan argi antzeman daitezke:



15. Argakia Beduako ingurune irudia 1954. urtean. Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia (web 1:5.000).



16. Argakia Beduako ingurune irudia 2011. urtean. Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia (web 1:5.000).

J.M. Korta industri gunea eraikitzeak Gorostiaga meandroko landa eremua galtzea ekarri du. Eremua urbanizatzeko egin den lursailaren kota igotzeak baldintza hidraulikoak aldatu ditu, eta baliteke horrek itsasadarren hustuketa ahalmena baldintzatzea, bai eta industriadetik gora dauden lursailen uholde arriskua ere. Bestalde, dimentsio handiko giza elementu horrek eragin negatiboa izan du inguruko paisaian, guztiz ere Urola ibaiaren beste aldean dagoen Beduako eremu bisualean, landa ezaugarriak erabat galdu ditu eta.

2.2. A.M.I.A. ANALISIA

Antolatutako eremuaren erabilera eta paisaiaren eboluzioaren analisiak azken hamarkadetako lurraren erabileraren hainbat joera utzi ditu agerian.

Joera horietako batzuek eremua berreskuratzeko eta babesteko helburuak lortzen lagundu dezakete; horren adibide dira: basoek azken hamarkadetan izan duten mailakako hedatzea, basoa ustiatzeko jardueren gutxitzea Artadiko basoan, Santixoko duna-sistemaren azaleraren handiagotzea edo saneamendu sareen hobekuntza eta hiri-hondakinen kudeaketa.

Bestalde, babeserako eta berreskurapenerako helburuak lortzeko orduan kaltegarritzat jo daitezkeen beste joera batzuk antzeman dira ere, bereziki: azpiegitura eta hirigintza garapenerako lursailen okupazioa, interesa duten eremuen murrizketa edota inguruko paisaiaren zein soinuaren kalitatearen gutxitzea eragin duten jarduerak.

Badira helburuak lortzeko prozesuan eragina izan dezaketen eta paisaian ondoriorik ez duten beste hainbat faktore. Zenbaitetan ez dira hain erraz hautematen eta oraingo Plan Bereziak aurkezten duen diagnostikoaren moduko analisi zehatzago baten beharra dute.

Hartara eta faktore horiek antzeman zein horietan sakontzeko xedeaz, jarraian diagnostikoan aipatutako ahulezien, mehatxuen, indarguneen eta aukeren [AMIA¹ analisis] laburpena erantsi da. Horrek hasierako egoerarekin eta aurretik aipatutako helburu nagusiekin bat datozen objektibo zehatzagoak birformatzerako orduan lagungarri izan beharko luke.

¹ AMIA: Ahuleziak, Mehatxuak, Indarguneak, Aukerak [DAFO gaztelaniaz]

Diagnostikoa aipatutako Ahuleziak (AH), Indarguneak (I), Mehatxuak (M) eta Aukerak (A)		AH	I	M	A
Estuarioa eta padura	Itsasadarraren kanalizazioa				
	Bukatu gabeko hiri saneamendu sarea (Santixo, Kirol Portua)				
	Kontrolatu gabeko isuriak				
	Ur hondakinen araztegia eraiki (EDAR)				
	Aldizkako dragatze lanak (ibai-ahoa)				
	Itsasoko kirolak (motordunekin)				
	Itsasoko kirolak (motorrik gabekoekin)				
	Uretako aisialdi jarduerak				
	Arrantza-kultura				
	Jarduera zinegetikoak				
	Amarradura eta geldialdi guneen kudeaketa falta				
	Bokalearen inguruan populazio dentsitate handia				
	Populazioa eta itsasadarraren arteko erlazio zuzena				
	Natura Gune Babestutzat jo izana eta KBEn Gestio Planaren onarpena				
	Lurralde plangintzarako babes figurak (LAA, LAP, itsasertzeko LAP, hezeguneen LAP, ibai eta erreketako ertzen LAP)				
	Lurralde legeintzaren eta antolaketaen babesa (Plan Hidrologikoa, Kosta lezea)				
	Herri plangintza antolaketa eta garapen plangintzaren babesa (Portu eremuko eta Santixoko Plan Bereziak)				
	Jabetza publikoa (Itsas-lehorreko Jabari Publikoa eta Uraren Herri Jabaria)				
	Hainbat administrazioen artean banatutako konpetentziak				
	Jarraipenerako mahai teknikoaren sorrera				
	Administrazio eskudunen finantza ahalmenaren murrizketa				
	Natura 2000 Sarean egoteagatik finantzazio gehigarria lortzeko aukera				
	Azpiegitura eta hirigintza garapenak ekarritako paduren murrizketa				
	Kirol portua				
	Kirol portuaren handitzea				
	Landare inbaditzaileen presentzia				
	Landare inbaditzaileak erazteko programak				
	Arrainen (ibai aingira) jarraipenerako programak				
	Paduren nekazaritzarako lursailerako bilakaera				
	Padura eremu potentzialen berreskurapena				
	Paisaia-kalitate handia				
	Estuario inguruan kultur intereseko elementuak				
	Europar Batasunerako interesgarriak diren habitaten presentzia				
	Mehatxatutako edota eskualdean interesgarriak diren landare espezieen presentzia				
	Ingurugiroarekiko sentsibilizazioa bizilagunengan				
	Herri partaidetza foroak				

Diagnostikoan aipatutako Ahuleziak (AH), Indarguneak (I), Mehatxuak (M) eta Aukerak (A)		AH	I	M	A
Duna-sistema	Kai-muturraren handiagotzea				
	Bukatu gabeko hiri-saneamendu sarea (Santixo, Kirol Portua)				
	Hondartzara sasoiko joera				
	Sasoiko aisialdi jarduerak duna finkoetan (kanpatzea, barbakoa, etab.)				
	Eguneroko kirol eta aisialdi jarduerak (paseoa, krosa, mendiko bizikleta, etab.)				
	Hondartzara iristeko sarbide zuzenaren falta (garbiketarako eta kontserbaziorako ibilgailuak)				
	Natura Gune Babestu izendatu izana eta KBEn Kudeaketa Planaren onarpena				
	Lurralde plangintzarako babes figurak (LAA, LAP, itsasertzeko LAP, hezeguneen LAP)				
	Lurralde legegintzaren eta antolaketaren babesa (kosta legea)				
	Herri plangintza antolaketaren eta garapen plangintzaren babesa (Santixoko Plan Berezia)				
	Jabetza publikoa (Itsaso eta Lehorren arteko Jabari Publikoa)				
	Jabetza pribatua aldameneko eremuan (Zuloagako lursaila)				
	Hainbat administrazioen artean banatutako eskumenak				
	Herri administrazioaren (udalak), administrazio autonomikoaren (bioaniztasuna) eta estatu- administrazioaren (Itsasertzeko Zerbitzu Probintziala) laguntza				
	Jarraipenerako mahai teknikoaren sorrera				
	Administrazio eskudunen finantzazio ahalmenaren murrizketa				
	Natura 2000 Sarean egoteagatik finantzazio gehigarria lortzeko aukera				
	Landare inbaditzaileen presentzia				
	Zuloaga lursailean espezie inbaditzailez diseinatutako lorategia				
	Landare inbaditzaileak erazteko programak				
	Duna sistema eremu potentzialen berreskuratze naturala				
	Paisaia-kalitate handia				
	Paisaia kaltea eragiten duten elementuen presentzia (galdutako guneak, Guascoren eraikin zaharra, inguruko aparkalekuak)				
	Itsasoaren ikusizko presentzia				
	Duna-sistema inguruko kultur intereseko elementuak				
	Europar Batasunerako interesgarriak diren habitaten presentzia				
	Mehatxatutako edota eskualdean interesgarriak diren landare espezieen presentzia				
	Ingurugiroarekiko sentsibilizazioa bizilagunengan				
	Herri partaidetza foroak				

Diagnostikoa aipatutako Ahuleziak (AH), Indarguneak (I), Mehatxuak (M) eta Aukerak (A)		AH	I	M	A
Baso naturalak (artadia, baso mistoa)	Europar Batasunerako interesgarriak diren habitaten presentzia				
	Artadiaren eta baso misto atlantikoaren banaketa potentzial handia				
	Mehatxatutako edota eskualdean interesgarriak diren landare espezieen presentzia				
	Landare inbaditzaileen presentzia				
	Erliebe aldapatsua				
	Eremu interesgarrietara hurbiltzeko zailtasuna				
	Higadura arrisku handia				
	Akuiferoak kutsatzeko arriskua txikia				
	Natura Gune Babestu izendatu izana eta KBEn Kudeaketa Planaren onarpena				
	Administrazio eskudunen finantza ahalmenaren murrizketa				
	Natura 2000 Sarean egoteagatik finantzazio gehigarria lortzeko aukera				
	Eguneroko kirol eta aisialdi jarduerak (paseoa, krosa, mendiko bizikleta, etab.)				
	Jarduera zinegetikoak, ehizarako postuak				
	Sartzeko zailak diren bidexkak (egoera txarra, jabeak itxitakoak, etab.)				
	Populazioaren dentsitate baxua				
	Azpiegiturak (A-8, N-634, etab.) eragindako soinu kalitatearen galera basoko gune batzuetan				
	Lurralde plangintzarako babes figurak (LAA, LAP)				
	Lurralde legeintzaren eta antolaketa babesa (Euskal Herriko Natura Babesteko Legea)				
	Udal plangintza nagusiaren babesa				
	Jarraipenerako mahai teknikoaren sorrera				
	Basogintzarako erabilera duten lursail pribatuaren nagusitasuna				
	Basoaren kudeaketarako Planen gabezia				
	Kalitate handiko paisaia				
	Herri eta aisialdi guneetatik ikuste erraztasuna				
	Paisaia eraldatzen duten elementuen presentzia (antenak, tentsio altuko sarea, eraikuntzak, landaketak)				
	Andeatutako eremuak artadi barneko eta inguruko guneetan				
	Hirigintzaren presioa eremu esanguratsuenetan (Artadi, Basustagaina)				
	Itsasoaren eta estuarioaren ikusizko presentzia				
	Kultur intereseko elementuak				
	Ingurugiroarekiko sentsibilizazioa bizilagunengan				
	Herri Partaidetza foroak				

Diagnostikoan aipatutako Ahuleziak (AH), Indarguneak (I), Mehatxuak (M) eta Aukerak (A)		AH	I	M	A
Oikia eta Beduako nekazaritzako eremuak – Ur-ertzeko landaredia	Europar Batasunerako interesgarriak diren habitaten presentziaren eskasia				
	Ibai basoaren banaketa handia (ibaiaren ertzak, Yartzako irla)				
	Landare espezie inbaditzaileen presentzia handia (<i>Arundo donax</i> , <i>Fallopia japonica</i>)				
	Nekazaritzarako balio handiko lurak				
	Uholde arriskua duten lurak				
	Akuiferoak kutsatzeko arriskua txikia				
	Natura Gune Babestu izendatu izana eta KBEn Kudeaketa Planaren onarpena				
	Administrazio eskudunen finantzazio ahalmenaren murrizketa				
	Natura 2000 Sarean egoteagatik finantzazio gehigarria lortzeko aukera				
	Jarraipenerako mahai teknikoaren sorrera				
	Plan Bereziak hartzen duen eremuan lursailak dituzten 25 nekazaritzako ustategi egotea				
	Nekazaritza-abeltzaintzatiko hondakinen kudeaketa ezberdina				
	Ibai basoa berreskuratzeko helburuekin bat ez datozen nekazaritzako jarduerak				
	Populazio dentsitate baxua				
	A-8 Autobideak eragindako soinu kalitatearen galera basoko gune batzuetan				
	Nekazaritzarako interesgarriak diren guneetarako lurralde plangintzarako babes figurak (LAA, LAP)				
	Lurralde legegintzaren eta antolaketa babesa (Uholdeak jasateko arriskua duten guneetarako erabilera irizpideak - Ibai eta Erreketako Ertzen LAP)				
	Nekazaritza interesa duten guneetarako udal plangintza nagusiaren babesa				
	Nekazaritza-abeltzaintzarako lursailen jabetza pribatua				
	Oso zatikatuta dauden jabetzak				
	Kalitate handiko paisaia				
	Ikusizko hauskortasun handia				
	Paisaia eraldatzen duten elementuen presentzia (txabolak, egitura ezegonkorak)				
	Hirigintza presioa eremu esanguratsuenetan (Artadi, Basustagaina)				
	Kultur intereseko elementuak				
	Nekazaritzako ustategietako jabeen ingurugiroarekiko sentsibilizazioa				
	Herri partaidetza foroak				

1.Taula Diagnostikoan aipatutako Ahultasunak (AH), Sendotasunak (S), Mehatxuak (M) eta Aukerak (A)

3. Kapitulua HELBURUAK ETA ANTOLAKETA PROPOSAMENA

3.1. JARDUKETA-ILDOAK ETA KALITATE HELBURUAK

Behin eremuko sendotasun, ahulezia, mehatxu eta aukera nagusiak ezagututa, Plan Bereziak eremuaren kalitatea hobetzeko xede orokor batzuk formulatu ditu, Natura Gune Babestuaren (Kontserbazio Bereziko Eremua) berezko helburuekiko koherenteak direnak eta, edozein kasutan ere, horiekin bat datozenak.

Helburuak jarduketa-ildo hauetan banatu dira:

- 1.- **Balio naturalak** babestu, hobetu eta berrezarri.
- 2.- **Baliabide naturalak** kontserbatu, hobetu eta berreskuratu.
- 3.- **Kultur ondarea eta paisaiaren balioak** babestu eta zaharberritu.
- 4.- **Erabilerak** arautu eta **ingurumen balioak** gizarteratu.

Jarraian jarduketa-ildo bakoitzaren kalitate helburuak adierazi dira:

- 1- Natura elementuekin harremana duten helburuak
 - Europar Batasunerako interesgarriak diren habitatak babestu.
 - Babestutako eremuan funtsezko elementuak diren habitaten azalera handitu (estuaria, duna-sistema, artadia).
 - Funtsezko elementuen heldutasuna, egitura-konplexutasuna eta bioaniztasuna bideratu. Andeatutako edota berreskuratzeko ahalmen handiko guneetan habitatak berreskuratu.
 - Mehatxatuta dauden landare eta animalia espezieak bizi diren guneak babestu eta horien berreskuratzea sustatuko duten gune berriak sortu.
 - Ur-ertzeko landaredia berreskuratu edota babestu.
 - Ibilguko zenbait gune leheneratu, estuarioko erregimen hidrologiko naturala berreskuratzeko.
 - Landare eta animalia inbaditzaileak kendu.
- 2- Baliabide naturalen ustiapenarekin harremana duten helburuak
 - Erregimen hidrologiko naturala mantendu eta bermatu.
 - Uraren kalitatea ziurtatu. Egoera ekologiko Ona edo Oso Ona lortu.
 - Eremuan dauden jarduerak eta nekazaritzako ustiategiak mantendu, lurraldearen erabilera jasangarria bultzatuz.
 - Lurraren kalitatea zaindu, kutsadura eta higadura prozesuak saihestuz.
 - Zuhaitz landaredi iraunkorra mantentzeko bokazioa duten lurren azalera handitu.
 - Nekazaritzak eta abeltzaintzak sortutako hondakinen kudeaketa ziurtatu.
- 3- Kultur ondarearekin eta paisaiaren balioekin harremana duten helburuak
 - Paisaia-hauskortasun eta kalitate handieneko guneak babestu.
 - Proposatutako jarduketak paisaia integratu daitezkeen bermatu.
 - Elementu bereziak babestu eta balioetsi (kultur edo natura mugarriak).

- Paisaia andeatzen duten jarduerak gelditu. Andeatutako guneen paisaia hobetu eta berreskuratu.
 - Katalogatutako elementu arkitektonikoak babestu.
 - Ustezko arkeologia guneak babestu.
- 4- Erabilera, jendarteratze eta ingurumen sentsibilizazioarekin harremana duten helburuak
- Hasierako helburuekiko koherentea den araudia ezarri.
 - Kirola, turismoa eta aisialdiarekin erlazioa duten jarduerak zuzendu, eremuko elementu naturaletan sor daitezkeen eragin negatiboak saihesteko.
 - Bizilagunei paisaiaren irisgarritasuna ziurtatu.
 - Bizilagunen partaidetza eremuko kudeaketan, antolaketan eta babesean.
 - Eremuaren babesean, borondatezko jardueretan, ikasleen sentsibilizazioan, eta abarretan diharduten taldeei laguntza eman.
 - Populazioa oro har eta, bereziki, nekazaritza-ustategien jabeak sentsibilizatu inguruko ondasun naturalen inguruan.

Helburuok oinarri hartuta egin dira eremuaren zonakatze xehatuaren proposamena, ezarritako gune bakoitzean eraikitze eta erabilera-erregimena eta Ekintza Planean proposatu diren jardueren definizioa.

3.2. XEDE IRUDIA

Ondorengo 1.irudiak (**Xede irudia 13. Planoan** zehatzago kontsultatu daitekeena), aurretik azaldutako helburuei erantzuna ematen dien etorkizuneko egoera azaltzen du. Egoera hori Ekintza Planean zehaztuko da eta esku-hartze eremu bakoitzeko planoetan kontsultatu ahal izango da.

Ekintza Planean hobeto zehaztuko diren antolaketa proposamen honen irizpide nagusiak honako hauek dira:

1.- Santixo hondartzara hurbiltzeko sarbide berria eginez eta hornikuntza osagarriak (sorosleak, taberna, dutxak, parkea, etab.) haren aldamenean egokituz, Santixoko duna-sistemaren (hastapeneko dunak eta duna finkoak) babesa eta andeatutako guneen leheneratzea ahalbidetuko da, kontserbaziorako eta garbiketarako makinek hondartzarako sarbide gisa erabiltzen duten horrena, hain zuzen ere. Jarduketa horiek ibilbidea iparraldeko ertzetik ixten duen bidexka berriz definitzea ahalbidetuko dute, aldi berean, paduraren lehengoratzeta sustatuz eta haren hedadura handiagotuz.

2.- Artadiko basoa mantenduko da, ertzetan azalera handituz eta eraldatutako zenbait lekutan zuhaitz estaldura hobetuz. Ezker ertzeko artadia, Kanteragainan, egun basogintzarako landaketek hartutako eremuan hedatuko da.

3.- Basadizar, Gorostiaga eta Beduako uhartearen inguruko eremuetan padura guneak lehengoratuko dira, Usurbirillagako (irlak) eta Basazpiako babes guneen ezaugarrien arabera. Beduako uhartearen eta Basadizarko baratzen kasuan, baratza-jarduerak onartzea aztertzen ari da, beti ere, erabilera egungo baldintzetan mantenduz gero.

4.- Baso autoktonoa berreskuratzeko azalera handituko litzateke, batez ere, baso misto atlantikoaren kasuan, gaur egun basogintzarako landaketek eta larreek hartutako lursail malkartsuak basoberrituz. Txilardiek eta beste zuhaixka espezie batzuek okupatutako eremuen bilakaera naturala bultzatuko da, baso helduagoak lortzeko asmoz.


5.- Ibai ertzetan dauden aldapa leunagoko gune garaiek nekazaritzako izaera mantenduko lukete eta, haien hauskortasun bisuala dela eta, ez litzateke eraikuntza berririk egingo.

6.- Bedua auzoko beheko aldea zaharberritu eta beste ekintza batzuetara xedatu litzateke, hirugarren sektoreko zerbitzuetara (hotela, jatetxea), bertako historiarekin zerikusia duten jardueretara (ohiko ontziola) edo aisialdiko jardunetara, alegia. Eremuak ur-azalarekin duen harremana sustatuko da. Gainerakoan, eremua dauden nekazaritzako ustategietara xedatuko da.

7.- Oikia ibar osoko nekazaritzarako lursailak mantenduko dira (Dornutegi, Bekoerriberak, Soburutzaldea, Ubitarte).

8.- J.M. Korta industria gunetik gorako zati osoan, ibaia babestuko duen perimetroa ezartzea aintzat hartzen ari da. Xedea ibaiaren inguruko azaleretan ibarbasoa berreskuratzea da, nekazaritza jarduerak horiek okupa ez ditzaten.

9.- Mantzisorreko zubiaren inguruko eremua eta Yartzako landaketak leheneratuko lirateke, haltzadi eta lizardi landaretza potentzialak berreskuratzeko eta interes handiko animalia espezieen (bisoi europarra) hedapenerako guneen sorreraren bitartez. Zubia, katalogatutako elementua, balioesteko neurriak bultzatuko dira.



1. Irudia: Xede irudia. Egilea: EKOLUR, SLL.

3.3. ANTOLAKETA PROPOSAMENA: ZONAKATZE XEHATUA

3.3.1. Aintzat hartutako aukerak

Antolaketa proposamenaren egite-fasean bi alderdiri buruzko hautabideak aztertu dira: proiektuaren esparrua eta zonakatze xehatua.

a) Proiektuak hartutako eremuari buruzko aukerak

A.1 Memoria informatibo eta zurigarria dokumentuan aipatu den bezala, hasieratik bi proposamen aztertu dira, biak “Urolaren itsasadarra” Kontserbazio Bereziko Eremuaren (KBE) mugarriztatze prozesuari loturikoak. Plan Berezia egitearekin batera burutu den prozesua izan da eta, hartara, Plan Bereziaren fase aurreratu batera iritsi den arte ez da ezagutu azkenean Natura Gune Babestu horretarako aukeratu den irtenbidea.

Bestalde, proiektuak hartutako eremua ere behin eta berriro azaldu den gaia da, hala Plan Bereziaren partaidetza prozesuaren hasierako fasean burututako foroetan, nola Mahai Teknikoaren eztabaidetan, zeintzuetan naturaren defentsarako taldeek eta administrazioek parte hartu baitute.

Prozesu osoan zehar, proiektuak hartutako eremurako, ondorengo aukera hauek aztertu dira:

- **A1:** behin betiko Kontserbazio Bereziko Eremuarekin bat datorren zedarritzatzea.
- **A2:** babestutako eremuaren hasierako onarpen fasean proposatutako mugarriztatzearekin bat datorren Kontserbazio Bereziko Eremuaren azalera, hemendik aurrera “*handitutako KBE*” deituko dena. “*Handitutako KBE*” horren hasierako mugarriztatzeak Plan Bereziaren ezaugarrietara egokitzeke aldaketa txiki batzuk jasan ditu, hala nola, Santixo hondartza eta Basustagaingo mendi-hegala barne hartzea edo landa lursailen ezaugarrietara egokitzea.
- **A3:** aurreko aukeretan baino azalera handiagoa hartzen duen eremu zabalagoa, non hasierako eremuarekin mugakide diren gune handiak antolatzeke aukera aztertzen den, bereziki: baso naturalez (Sanbartolome basoa) estalitakoak, hezeguneen LAPek antolaturiko guneak edo interesa duten eremuen (Zuloagako lursaila) kontserbazioarekin harreman zuzena dutenak.


Hasiera-hasieratik, Zumaiako Udala A2 aukeran edo “*handitutako KBE*” horren barne hartutako eremu guztiak mantentzearen aldekoa izan da, eta horixe izan da hautatutako aukera eremuko diagnostikoa egitean ere, onartutako KBE a edo A1 aukeran proposatutako eremu txikiago baten aldean.

Atzerago esan den bezala, herritarrek parte hartzeko foroetan A3 aukera edo inguruko guneak hartzen dituen proposamena aztertu da. Plan Berezi hau idatzi duen lan taldearen konponbidea eremu mugakide horiek sartzea izan da, eta ekintza arauak Planak zuzendutako eremuko ‘indargetze-eremu’ batean baino ez dira ezarriko.

Irtenbidea honako argudio hauetan oinarritu da, bereziki:

- Plan Bereziak merezi duen arreta gal ez dezan, jarduketa eta ahalegin guztiak babestutako eremu naturaleko funtsezko elementuak (estuaria, duna sistema, padurak) biltzen diren eta berez nahikoa handia den eremu batean (160 ha) egingo dira.

- *A.4 Ekintza Plana* dokumentuan egiaztatuko den moduan, jarduketa ugari proposatzen dira, batzuk oso nabarmenak, eta horiek kudeatu eta ahalbideratzeko beharrezkoak izango dira laguntza ekonomikoak eta instituzionalak. Horregatik, ahalegina lehentasuna duten jarduketa zehatz gutxi batzuetan egitea hautatu da, eraginkorragoa izango delakoan.
- Indarrean dagoen udal hirigintza plangintzak (Getaria, Zumaia eta Zestoako Hiri Antolaketarako Arauak) eta onartutako lurraldearen arloko planak (Hezeguneen LAP) gunek horiek babesten dituzte eta erabileren arauak ezartzen dute inguruko gunetako ondasun ekologikoa babesteko eta gal ez dadin.
- Dena dela, A3 aukeran 'indargetze-eremu' gisa proposaturiko inguruko gunek horiek mugarriztatzea aukeratu da, hala indarrean dauden plangintza araudiak sendotzeko, bizilagunen informaziorako soilik bada ere, nola, beharrezkoa den esparruetan, jarduera araudi berriak ezartzeko.



2. Irudia: Plan Bereziaren mugaketa aukerak. Egilea: EKOLUR, SLL.

b) Zonakatze xehatuari buruzko aukerak

Plan Bereziak egun indarrean dagoen Getaria, Zumaia eta Zestoako hiri plangintza orokorra garatzen du antolakuntza eremuan. Araudi orokor horrez gain, Plan Bereziak onarturiko lurralde eta arlo plangintzak errespetatu behar ditu, baita goragoko antolakuntza esparruetan eta arloko legedian ezarritako babes figurak. Plangintzarako esparru horren guztiaren ondorioz, ez da zonakatze hautabiderik proposatzeko aukera handirik, edo izatekotan, eremuaren zonakatze xehatura mugatzen da.

Plan Bereziaren zonakatze xehatuaren proposamena hainbat jarduketa-ildotan ezarritako helburuekin bat dator, beraz, Planak dituen helburuen aldean (Urolaren itsasadarraren babesa eta kontserbazioa), asmo handiko proposamen gisa har daiteke. Ondare naturalari eman zaio lehentasuna, 'Kontserbazio Bereziko Eremu' izendapenarekin koherente izateko, bestelako balioak gutxietsi gabe, aisialdi eta nekazaritza balioak esaterako, eta haien babesa eta mantentzea aurrekoekin bateragarriak izan daitezten. Indarrean dauden goragoko hierarkia mailako legedi eta araudi nagusien ebazpenak aintzakotzat hartu dira eta eremuko diagnostikoak gomendatutako arloetan izan ezik, ez da murrizketa gehigarririk ezarriko.

Eremuko erabilera eta jardueri loturiko beste zonakatze hautabide apalagoak proposa zitezkeen, betiere aurretik aipatutako araudia errespetatuta. Baina aukera horiek ez liekete Plan Bereziko helburuei erantzunik emango, eta aurretik esan dugun bezala, ez lituzkete indarrean dauden lurralde eta arloko plangintzak beteko.

3.3.2. Zonakatze xehatua


Udal plangintzaren arabera Plan Bereziak hartzen duen azalera ondorengo eremu globaletan kalifikatu da:

- Babes bereziko eremuak
- Ingurumen-hobekuntzarako eremuak
- Landa eta nekazaritzarako eremuak
- Sistema Orokorrak

Zonakatze xehatuak berezko ezaugarriak eta erabilera eta jarduera erregimen bereziak dituzten azpieremu txikiagotan banatu ditu goian aipatutakoak.

Oraingo Plan bereziak hartzen dituen gunen horiez gainera, indargetze-eremu batzuk proposatu dira eta horiek kudeatuko dituzten jarduketa-ildo nagusiak ezarri dira ere.

Zonakatze proposamena jarraian erantsi den irudian kontsulta daiteke. Zehaztasun handiagoz ikusteko joan **Zonakatze xehatua 14. Planora**.



3. Irudia: Zonakatze xehatuaren proposamena. Egilea: EKOLUR, SLL.

A) Babes Berezi Zorrotzeko eremuak: funtsezko eta lehentasunezko babesa dute; horietan eremuko ekosistema berezi edo hauskorrenak (duna sistema, padura eta artadiak), mehatxatutako landare eta animalia espezieen habitatak, paisaia-baliorik nabarmenak, eta abar biltzen dira, naturalak ez diren eragin guztietatik babesa behar dutenak.

Helburu nagusia gizakiaren eragina mugatu eta natur ingurunearen zaintzean datza.

Urolaren Itsasadarreko duna-sistema, estuario eta padura gunek, baita itsasadarreko bi mazelako artadi kantaurreak ere mota horretakoak dira.

Ondorengo eremuak hartu dira barne:

- Hondarra egonkoritu arteko hedapen etengabea duten marearteko gunek edo mareaz kanpoko hondartzak (Santxoko duna sistema),
- Padura gunek eta marearteko edo mareaz kanpoko lokatz gunek, landaredunak ala landaririk gabekoak (Santxo, Usurbirillaga, Basazpia).
- Egun Artadi kantaurreak estaltzen dituen eremuak, baita horren potentzialtasuna dutenak (Artadi, Kanteragaina, Dornutegi) ere.

B) Babes Berezi Bategarriko eremuak: natura- edota kultur interesa duten zonak, ingurumen sistema sentikorrek hartzen dituztenak, baliabide natural eskasekoak edota ikusizko hauskortasun handikoak zein Babes Zorrotz Bereziko eremuekin mugakideak izateagatik, haien babesa ziurtatuko duten neurriak behar dituzten gunek dira.

Xede nagusia, eremu osoko ezaugarrien babesa ziurtatzeaz gain, galdutakoak berreskuratu eta hedatzea da, baita ikerketa zientifikoa, ingurugiro hezkuntza eta aisialdirako jarduerak erraztea ere, baliabide naturalen ustiapena (nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza) natura ingurunearen babesarekin bateragarria eginez. Unitate horien paisaia-balioa edo balio ekologikoa lehentasunezko gaia da baliabideen ustiapenari dagokionean.

Ondorengoak dira:

- Baso naturalen babeserako eta haien hedapen potentzialerako gunek, leku malkartsuetan eta higadura handiko gunetan (Sanmigelbaso, Basustagaina).
- Paisaia-hauskortasun handiko gunetan edo, leku garaietan ez egon arren, babes bereziko eremuen barruan dauden nekazaritzarako lursailak (Landarte).

C) Paisaia Babesteko eremuak: paisaia-hauskortasun handia izanik babes bereziko eremuetan ez dauden gune nabarmenak dira, inguruko eremu zabaletatik ikusgai diren gune garaiak, batez ere eguneroko pasealekueetatik ikusten direnak.

Helburu nagusia paisaiaren kalitatea mantentzea da, eta, ahal den neurrian, hobetzea, paisaian eragin negatiboa izan ditzaketen elementuak saihestea, landa ezaugarriak hirigintza garapenetik babestea eta aurretiko eragin negatiboak zuzentzea edo arintzea.

Ondorengo eremuak sartzen dira:

- Gune garaietan dauden babestutako paisaia gunek. Ikusizko hauskortasun eta hauskortasun eszenografiko handiko eremuak (Artadi, Basustagaina, Torre).

D) Ekosistemak Hobetzeko eremuak: garrantzi handiko balio edo potentzial ekologiko, natural edota paisajistikoa duten gunek izan arren, eta gizakiaren eraginez hainbat eratako eta mailatako eraldaketak jaso badituzte ere, hasierako egoerara itzultzeko gaitasuna duten gunek dira. Barnealdean edo balore ekologiko handiagoko eremuen alboan egoteagatik, onuragarritzat jotzen da natura kalitate handiagoko ekosistemara eboluzionatzea.

Helburu nagusia funtzionaltasun bereziko ekosistemak berreskuratzeko ekintzak bultzatzea da.

Ondoko hauek dira:

- Gaur egun nekazaritza eta basogintzarako erabilitako gunek (baratzak, ibai ertzeko baso landaketak) zeintzuetan, etorkizunerako, haltzadi-lizardi eta padura ekosistemen berreskuratzea proposatu den. Oraindik ohiko jarduerak burutzen diren nekazaritza lursailetan antolakuntza irizpidea jarduerok baimentzea izango da, irizpide nagusiaren baldintzekin bat datozen bitartean (Basadizar, Beduako uhartea, Mantzisidorreko uhartea).
- EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatze Lurraldearen Arloko Planak izendatutako 'Lehentasunezko Natura Intereseko Gunek', hau da, ibaiertzeko eta erreka ertzeko babes gunek. Horietan, ibaiertzeko basoa berrezartzeko edota mantentzeko lanak lehenetsiko dira, ibaiaren ibilbide guztian (Bedua eremutik gorako Urolako erriberak) landaretza naturaleko lerro jarraitua hedatzeko asmoz

E) Berreskuratu beharreko gune andeatuak: giza jarduerak eraldatutako gunek dira, ingurumenean edo paisaian aurreko kasuan baino aldaketa handiagoak jasan dituztenak. Ingurumena eta paisaia eraldatutako eremuak eta marearteko guneetan sortutako betetze eremuak sartzen dira barne, horiek guztiek, Kontserbazio Bereziko Eremuaren inguruan egoteagatik, berreskuratzeko beharra dute eta.

Irizpide nagusiak ingurumena berreskuratzea behar du, kokatuta dauden eremuaren ingurumena berrezartzera eta babes berezikoak diren gune mugakideetan integrazioa ahalbidetzerantz zuzenduta.

Ondorengo eremuak dira:

- Andeatutako gunek (betelanak, nekazaritzako erabilera eskasa), padurako ekosistema propioak lehengoratzeko berreskuratu beharrekoak. Gorostiagako betelanaren kasuan (Soroberriak), haren lehengoratzeko hezeguneen Lurraldearen Arloko Planean proposatzen da (1. Aldaketa).
- Ibai ondoko andeatutako gunek, hauskortasun bisual eta eszenografiko handia dutenak (Floreseko ontziralekua eta Zubiberriako lursaila).

F) Nekazaritza intereseko gunek: kategoria honen baitan nekazaritzarako ahalmenik handiena duten lursailak eta gaur egun nekazaritza jardueretarako erabiliak direnak sartzen dira. Kokaleku topografiko onuragarrietan egoteagatik eta haien ezaugarri fisiko-kimiko, emankortasun, bai eta erabilgarritasun zein irisgarritasunagatik nabarmentzen dira. Nekazaritza jardueraren mugarik azpimarragarriena uholde arriskua da, handia edo oso handia, lursail horien kasuan.

Jomuga orokorra nekazaritza produkzioarako lur baliabide naturala mantentzea da, ingurunearen ingurumen balioekin bateragarria izanik, bai eta zenbait ongari eta produktu kimikoen erabilera kontrolatzea ere, estuarioa eta bertako lurak kutsa ez ditzaten.

Arreta berezia jarri beharko da balio agrologiko handiko lurzorua okupatzen duten eraikuntza prozesuak eta azpiegiturak kontrolatzeko, baita nekazaritza zonak zatikatu eta gune isolatuak bihurtzen dituzten

prozesuak kontrolatzeko ere, bertan burutzen diren jardueretarako ondorio kaltegarriak ekarri ohi dituzte eta.

Ondorengo eremuak sartzen dira:

- Oikia, Dornutegi, Ubitarte eta Soburutzaldea ibarretako ibai ondoko lurzorua. Ibai-sistemarekin harreman estua duten eremuak dira eta, kasu gehienetan, %10tik gorako urteko uholde-maiztasuna dute (Hamar urteko itzulera-aldiko uholdeek hartutako gunek). *“Lur azalera honetan ibaiaren ahalmen hidraulikoa eta ibai ekosistema mantentzearekin eta gozamenarekin erlaziorik ez duen edozein hirigintza erabilera baztertuko da. Ibai ertzetan burututako jardueren helburua, erreka zati horren egoera ekologiko egokia lortzea edo mantentzea izango da”*. [Lurren erabilera erregimena uholde arriskuaren arabera. Ur Agentzia].

Gainerako gunek uholde arrisku txikiagoa dute, nahiz eta ehun eta bostehun urteko itzulera-aldiko uholdeek padura zati batzuk eragin ditzakeen (uholderik izateko probabilitatea %1 eta %10 bitartekoa da urtean).

G) Hiri-hondartza: ingurumen balio garrantzitsua izanda ere, eremu horietan erabat finkaturik dauden aisialdi jarduera intentsiboek antolaketa erabat baldintzatzen dituzten gunek dira. Zumaiaiko herrigunearen inguruan dagoen ‘hiri-hondartza’ da, bisitari etorrera nabarmena duena, batez ere uda garaian, eta sarbidearen eta oinarritzko zenbait zerbitzuren hobekuntza nabarmen behar dituen.

Hondartzaren antolaketa paisaia-irizpideak ardatz hartuta egin behar da, hots: ingurunearen hobekuntza sustatuz eta zerbitzuen hornikuntzarekin bateragarria eginez; Itsasoko eta Lehorren arteko Jabari Publikoa babestuz eta zainduz, (edozein kasutan, baita mugakideak diren eremuetan ere), haren osotasuna eta erabilera egokiak defendatuz, haren ezaugarriak eta elementu naturalak babestuz eta lanak eta azpiegiturak burutzean sortutako ondorio kaltegarriak gutxituz.

Ondorengo gunea da:

- Erabilera publiko intentsiboa duen marearteko eta mareaz kanpoko hondar eremua (Santixo hiri-hondartza). Eremu horren eta gainerako duna-sistemaren babes bereziko eremuaren arteko muga erabat alda daiteke, hondartza eta duna-sistema bera Orruaga aldera mugitzen ari delako.

H) Ubide nagusia: Zubiaundiko oinezkoentzako zubitik Errotagaingo zubiraino. Tarte horretan lohiez osatutako intereseko habitatak hauteman dira eta, hartara, babes berezi zorrotzeko eremu gisa zonakatu da. Usurbirillaga inguruko bigarren mailako ibilguak ere, itsasbeheran sakonera eskasekoak, ibilgu nagusitik kanpo geratu dira eta babes berezi zorrotzeko kategoria eman zaie.

Ondorengo eremuak sartu dira barne:

- Zubiaundi-Errotagaineko tartean itsasadarraren ibilgu nagusiak eratutako mareapeko gunek.

I) Ekipamenduak: Plan Bereziak landa eremuan eraiki beharreko komunitate ekipamenduak hartzera xedaturiko eremuak dira. Instalazio horiek inguruko garapenerako beharrezkoak eta, batez ere, herritarren atseden eta aisialdirako izango dira.

Helburu nagusia eremu horiek ingurunean sor ditzaketen eragin kaltegarri potentziala gutxitzea da. Kategoria honetan sartzen dira:

- Lurraren okupazioan eragina duten etorkizuneko azpiegiturak, zerbitzuak eta herri ekipamenduak hartzera xedaturiko gune publikoak. Katēgoria honetan Santixo hondartzako zerbitzuak, ekipamenduak eta sarbideak sartu dira.
- Egitura edo egiturarik gabeko jabari publiko edo pribatuko guneak, zeintzuetan, arrazoi bereziak direla eta, komunitate ekipamenduak nekazaritzarako lurretan ezarri behar diren. Katēgoria horretan Beduako hotela kokatzen den herrigunea eta utzitako eraikinak (zementu lantegia eta ontziola) sartu dira, baita J.M korta industria gunerako sarbidearen hobekuntza ahalbidetuko lukeen zubiaren inguruko azalera lerroa ere.

J) Komunikazioen Sistema Orokorra: Plan Bereziak nekazaritzarako lurretan ezarri beharreko eta eremura edo inguruko guneetara iritsi ahal izateko oinarritzko azpiegiturak, dagoeneko eraikita daudenak nahiz etorkizunerako proposaturikoak (bideak, errepideak, trenbideak), hartzera xedaturiko eremuak dira. Helburu nagusia azpiegitura horiek ingurumenean duten eragin kaltegarria gutxitzea da.

Galda daitezkeen legeak ezarritako ingurumen eraginaren gaineko azterketak alde batera utzirik, gune horietan paisaiaren integrazioa zainduko da, bereziki, baita kokatuko den landa eremuetan aldaketa ahalik eta txikiena izan dadin ere.

Ondorengo azpiegiturak dira:

- Udal hiri plangintza orokorrean ezarritako komunikabideen Sistema Orokorrak: ‘*Trenbidea*’ 12. SO, ‘*A-8 Autobidea*’ 13. SO eta ‘*N-634*’ 14. SO.

K) Portu eremua: Urola ibaiaren ubide nagusia hartzen du baitan, Zubiaundiko oinezkoentzako zubitik ibai ahorraino. EAEko Portu Zuzendaritzak kudeatutako eta ‘*Kaia*’ 7. *Sistema Orokorre*arako Plan Bereziak antolatutako hiri-lurzorua da. Katēgoria honetan sartzen dira: hiri-lurzoruan dauden Urolaren itsasadarra inguruko herri guneak.

Azkenik, antolatutako eremuaren inguruko hainbat gune hauteman dira. Beharrezkotzat jo da horietan jarduera artezpideak ezartzea, bertan egiten diren erabilera eta jarduera batzuk Plan Bereziak antolatutako eremuan eragina baitute edo izan baitezakete.

Horiek Indargetze-eremuak deituriko atalean sailkatu dira eta ondorengo guneek osatzen dute:

- Zuloagako lursaila: duna-sisteman kokatua, Zumaiaiko udal plangintzan ‘Babes bereziko’ gunea da.
- Karakaseko erriberako eremua: Hezeguneen LAPek antolatutako gunea da eta hala LAP horrek nola Zumaiaiko hiri plangintza orokorrak ‘Nekazaritza, abeltzaintza eta Landazabal’ kategorian sailkatzen dute.
- Flores-mendiko ipar mendi-hegala: aurreko gunearen ondoan dago eta Karakaseko erribera eta Artadi ‘Babes bereziko’ eremuak lotzen ditu. Zumaiaiko udal plangintzan ‘Babes bereziko’ gunea da.
- Sanmigelmendiko gune garaia: Sanmigelbaso ondoko gunea da, haren kokapen garaia dela eta, ikusizko hauskortasun handikoa. Zumaiaiko udal plangintzan ‘Babes bereziko guneak-tontorrak’ kategorian sailkatu da.
- Urola eskuineko ertzeko baso naturalak, Dornutegitik Errotagaineraino. Ibarreraino jaisten diren aldapa malkartsuko eta baso naturalez estalitako mendi-hegalak dira. Zumaiaiko udal plangintzan ‘Babes bereziko’ guneak dira.

3.4. UDAL HIRI PLANGINTZAREN ZONAKATZEAREN ANALISIA ANTOLAKETA PROPOSAMENARI DAGOKIONEZ

Udal hiri plangintzaren analisia A.2 Diagnostikoaren 2.2. Udal plangintza markoa atalean ikus daiteke. Atal honetan, aipatu plangintzak Plan Berezian proposatzen den zonakatze xehatuarekin duen koherentzia maila aztertzen da.

A) GETARIA

Getariako hiri plangintza orokorrak lurzoru urbanizaezinen sailkapena ezartzen du Plan Bereziaren eremuan (A.2 Diagnostikoaren 2.2.1.2 atala ikusi), baita 'G.4. Komunitate ekipamenduko sistema orokorra. Santixo eta Orruaga hondartzak' kalifikazio orokorra ere. Plangintzak hondartzako zerbitzuak eta egiturak hartzera xedatzen du gunea; erabilera aipagarrien artean, komunitate ekipamenduez gain, 'Ingurumena zaintzea, babestea, suspertzea, berreskuratzea eta hobetzea' erabilera bereizten da.

Planeamendu orokorra Santixo 2. Sistema Orokorra garatzeko Plan Bereziak egin du, Zumaia udalarekin batera. Aipatu Plan Bereziak 'A.I.4 Santixo Hondartzako duna eremua' edo Babes Berezi (AEP4) 4. Gunea Getariako eremua hartzen du. Plan horren arabera, 'Babes berezi' eremu hori etengabeko hedapen prozesuan dago, hondarrak guztiz egonkortu arte.

Oraingo Plan Bereziaren arabera, Getariako udalerriko eremua ondorengo guneek osatzen dute:

- **Babes Zorrotz Berezia.** N-634 errepidea mantentzen duen hormaren oinarrian sortutako duna aitzindaria, Itsasertza Babestu eta Antolatze LAPEk bereziki babesturikoa ['Babes Berezi' kategorian]. Indarrean dagoen 2. SOren Plan Bereziaren arabera, 'A.I.4: Santixo Hondartzako duna eremua' delakoaren barnean dago.
- **Hiri-hondartza.** Erabilera intentsiboa duen hondartza eremua, 2. SOren Plan Bereziaren arabera, 'A.I.4: Santixo Hondartzako duna eremua' edo 'Babes Berezi 4 Gunea' eremuaren barnean dago, eta bertan behin-behineko zerbitzu eta egiturak baimentzen dira. Itsasertza Babestu eta Antolatze LAPEk 'Erabilera Berezi Zona: Hiri-hondartza' kategorian sailkatzen du eremua.
- **Ekipamenduak.** Eremu honen zatirik handiena 2. SOren Plan Bereziaren 'A.I.5: Espaloia eta oinezkoentzako ibilbideak' kategoriaren barne sartzen da. Atal horretan hondartzarako sarbide bat egiteko proposamena agertzen da, oraingo Plan Bereziak planteatu bezala, bai eta hondartza zerbitzuak eskainiko dituzten ekipamenduen kokapena ere.

Ez da bateraezintasunik antzeman udal plangintza orokorraren eta oraingo Plan Bereziaren artean Getaria udalerriko eremuari dagokionez. Plan Berezi honek N-634 errepidearen eta Santixoko hondartzaren arteko eremuan Getaria eta Zumaia arteko oinezko pasealeku bat egitea ahalbidetzen du, bai bere araudian bai eta 1-01 'Santixoko hondartza' eta 1-02 'Santixoko duna' esku-hartze azpieremuetako fitxa urbanistikoetan, beti ere, azpiero horietan dagokien zatian.

B) ZUMAI

Plan Bereziak antolatutako eremuaren zatirik handiena lurzoru urbanizaezin gisa agertzen da Zumaia AASSetan. Salbuespenak lurzoru urbanizagarritzat jotako eremuak dira, honako hauek:

- Urolaren itsasadarreko estuarioa, Zubiaundia zubitik (oinezkoentzako) ibai-ahoraino, lurzoru urbanizagarri gisa sailkatuta dago eta Garraio eta Komunikabideen Sistema Orokorren barnean sartzen da. Plangintza orokorrak E.3.1. *Portuko Erabilera Zona* eta E.3.3. *Amarratze tradizionalako zonak* bereizten ditu. Kasu bietan, erabilera nagusiak “*Portu erabilerak, itsasontzi tradizionalak eta kirol itsasontziak amarratzea*” dira, eta bigarren kasuan, “*(...) berariazko instalazio osagarriak (nasak, dikeak eta abar)*” eraikitzeak aukera onartzen da, baina, beti ere, emakida erregimenean.

Eremu publikoa da eta EAeko Portu Zuzendaritzak du horren eskumena; hark bultzatu du ‘*Kaia*’ 7. SO Plan Bereziaren Sistema Orokorra.

Oraingo Plan Bereziak ‘*Kaia*’ izenekoan sartu du eremu osoa, horren antolaketa ‘*Kaia*’ 7. SOren Plan Bereziaren mendean utzi asmoz. Nolanahi ere, Plan Bereziak gomendio arauak ezarriko ditu zenbait jardueren inguruan: amarratze puntuak, egitura berezien kokapena (nasak), saneamendua, dragatze lanak.

- AU18 Korta eremuko gune libreak. Lurzoru urbanizagarrien barnean sailkaturik daude eta industria kalifikazio orokorra dute. Zonakatze xehatuak gune libreetara xedatzen du mendebaldeko zatia (29.091 m²). Hirigintza eta hornikuntza baldintzei dagokienez ondorengo hau ezartzen da: “*Berdegunek natura esku-hartzerako irizpideak beharko ditu Beduako uharteen inguruko trantsizio zona baita. Zona horren hego-ekialdean, ezpondaren ondoan, Garbigunea jarriko da (...)*”. Ordenantza zehaztuetan eranstean da: “*(...) Garbigune proiektuaren exekuzioan arkitektura eta paisaia neurriak hartuko dira, multzoa ingurunean integratzen dela bermatzeko*”.

Oraingo Plan Bereziak berdegune hori hartu du barne, garbigunea kokatzen den eremua kanpo utzita, ‘**Berreskuratu beharreko eremu andeatuak**’ kategorian sailkatuz, Gorostiagako betelanak hartutako lursailekin batera [Beduako uharteetako ingurunea], inguru osorako proposamena garatzeko asmoz. Proposamena AU18 Korta hirigintza fitxan ezarritako natura esku-hartzerako irizpidearekiko koherentea da eta Hezeguneen LApek (1. Aldaketa) hartzen duen lehengoratzeko eremuarekin ere bat dator.

- 4 Xey sektoreko ibaiertza industria erabilera duen lurzoru urbanizagarria da. Hirigintza fitxak dioenez: “*Erabilera eta jabari publikoko lurzoruak udalari laga behar zaizkio, jabari osoz eta kargarik gabe (...). Babes zorguneko eremuko erabilerak Kosteak buruzko Legearen 24. eta 25. artikuluetan ezarritakoaren arabera izango dira*”.

Plan Bereziak ‘**Ekosistemak hobetzeko zonak**’ kategorian sartzen den ibaiertzeko zatia sartu du, Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak aitortutako ‘Lehentasuneko Natur Intereseko Eremu’ izendapenarekin koherentzia mantenduz. Eremuaren zati bat Jabari Publikoari, Itsaso eta Lehorren arteko Jabari Publikoari eta Uraren Herri Jabariari dagozkio eta gainerakoa Itsaso eta Lehorren arteko Jabari Publikoaren Zorgune Eremuari eta Uraren Herri Jabariaren Polizia eremuei.

Plan Bereziak antolatutako gainerako eremua lurzoru urbanizaezin gisa kalifikaturik dago. Zumaiaiko AASek kategoria desberdinetan sailkatzen dute lurzoru mota hori; ondoko hauek dira Plan Berezia osatzen duten eta horrek antolatzen dituen eremuak:

- ‘Babes bereziko’ landa guneak (D.1), Arau Subsidiarioen 3.7.4. atalak antolatutako (137 eta 138 artikuluetan), nahiz eta ondoren 139. artikuluan honako hau ezarri: “*Babes bereziko eta*

ingurumena hobetzeko zonetako erabileren eta jardueren erregulazioa arau hauetan aurreikusitako garapen planeamenduan ezarriko da (...)”.

AASek gune hauetarako ezartzen duten irizpide orokorra “*esku-hartze antropikoa mugatzean datza, eta lehendik zegoen egoera bere horretan utziko da; era berean, zona horretan aprobetxamendurik baldin badago, aprobetxamendu hori modu iraunkorrean bultzatuko da, eta erabiltzen den baliabidea eraberritzen dela ziurtatuko da*”.

AASek aipatzen dutenez (137. artikulua), “*Ekosistema kontserbatzeko eta ingurumena hobetzeko jarduerak bakarrik bultzatuko dira, (...). Onargarritzat hartzen dira, Garapen plangintzaren bitartez arautu ondoren, jolas jarduera estentsiboak, abeltzaintza, basogintza, airetiko lineak, lurpeko lineak, B morako zerbitzu lineal ez diren instalazio teknikoak eta herri onurako eta gizarte intereseko eraikuntzak. Debekatutzat hartzen dira Irizpide orokorrarekin bateraezinak diren jarduerak era, bereziki, arau honetan definitzen direnaren arabera, jolas jarduera intentsiboak, nekazaritza jarduerak, negutegiak, nekazaritza industriak, erauzketa jarduketak, garraiobideak, A motako zerbitzu lineal ez diren instalazio teknikoak obra hondakindegia eta zaborteak eta eraikuntza erabilera guztiak, Herri onurako eta gizarte intereseko eraikuntzak izan ezik*”.

Oraingo Plan Bereziak antolatutako eremuaren parte diren Sistema Orokorrak barneratu ditu ondorengo guneetan:

- **Babes Zorrotz Bereziko guneak:** Santixoko duna-sistema; Santixoko eta Usurbirillagako padurak; Artadi eta Kanteragainako artadiak.
- **Babes Bateragarri Bereziko guneak:** azalera malkartsuetan eta higadura handiko eremuetan (Sanmigelbaso, Basustagaina) dauden baso naturalak babesteko guneak, baita haien hedapenerako guneak ere; babes bereziko guneetako nekazaritzako guneak (Landarte).
- **Paisaia Babesteko guneak:** hauskortasun bisual eta eszenografiko handia duten leku garaiak (Artadi eta Basustagainako tontorrak).
- **Ekosistemak Hobetzeko guneak:** gaur egun nekazaritzarako erabilitako guneak (baratzak eta larreak), non padura ekosistema berreskuratzea proposatzen den. Oraindik ohiko jarduerak burutzen diren nekazaritza lursail hauetan, antolaketa irizpidea ekintza horiek baimentzea izango da, irizpide nagusiaren baldintzekin bat datorren bitartean (Basadizar).
- **Berreskuratu beharreko eremu andeatuak:** Ingurumena eta paisaia eraldatutako guneak eta marearteko guneetan sortutako betetze eremuak sartzen dira barne; horiek guztiak, Kontserbazio Bereziko Eremutik gertu (Gorostiagako betetzea, Zubiberria ondoko lursaila, Artadiko Flores ontziralekua) daude.
- **Nekazaritza intereseko guneak:** Ubitarte ibarreko ibaiertza (eskuin ertza). Ibai-sistemarekin estuki erlazionatua eta uholdeak jasateko %10 baino handiagoko aukera duen gunea (Hamar urteko itzulera-aldiko uholdeek hartutako guneak).

Oraingo Plan Bereziaren zonakatzeko xehatua Zumaiako babes guneak eta bertan ematen diren erabilerak antolatzen dituen Arau Subsidiarioekin bat dator eta ingurumenaren kontserbaziorako eta hobekuntzarako jarduketak proposatzen ditu. Egon daitekeen kontraesan bakarra Ubitarte ibarreko zati bat nekazaritza babes eremuan sartu izana da. Gaur egun eremu hori bazkarako erabiltzen da, AASek ez baitute nekazaritza erabilera baimentzen, bai, ordea, abeltzaintza erabilera. Aipatu beharra dago Urola Kostaldeko

Lurraldearen Zatiko Planak 'Nekazaritza intereseko guneak' atalean sailkatzen duela gune hori.

- Urolaren ingurumenaren hobekuntzarako guneak: Oikiako basoa (M.A.2), hirigintza arauetako 3.7.4. atalak antolatzen du (137 eta 138 artikulua), nahiz eta ondoren honako hau ezarri (139. artikulua): *"Babes bereziko eta ingurumena hobetzeko zonetako eta jardueren erregulazioa arau hauetan aurreikusitako garapen planeamenduan ezarriko dira (...)".*

AASSek eremu horretarako diotenez: *"Area hori lehengoratzeko eta antolatzeko, plan berezi bat idatziko da, adierazitako irizpideen arabera. Plan horren helburua lur-sailak desjabetzea eta zonaren mugak zehaztea izango da".* Bestalde, zona horietarako eboluzio irizpideak ezartzen dituzte *"egungo egoera ekologia aldetik gehiago eboluzionatzea"* helburu.

Zona horietan *"(...) Ekosistema bere onera ekartzea eta kontserbatzea bultzatuko da. Onargarriak dira jolas jarduera estentsiboak (...) inolako murrizketarik gabe. Jolas jarduera intentsiboak, ehiza eta arrantza jarduerak, abeltzaintza, basozaintza erabilerak, nekazaritza industriak, airetiko lineak, lurpeko lineak, B motako zerbitzu lineal ez diren instalazio teknikoak eta herri onurako eta gizarte intereseko eraikuntzak, berriz, garapen plangintzaren xedapenen arabera onartu ahal izango dira".* Irizpide orokorrek batera ezin diren jarduerak debekaturik daude eta, *"bereziki, arau honetan definitzen denaren arabera, nekazaritza jarduerak, obra hondakindegia, zabortegiak, negutegiak, A motako zerbitzu lineal ez diren instalazio teknikoak, eraikuntza erabilera guztiak eta herri onurako eta gizarte intereseko eraikuntzak".*

Oraingo Plan bereziak, AASSen garapenerako plangintza denak, aipatu eremua honako zona honetan sartu du:

- **Ekosistemak hobetzeko guneak:** gaur egun baso landaketarako erabiltzen da eta etorkizunerako haltzadi-lizardi ekosistemen berreskuratzea proposatzen da.

Plan Bereziaren zonakatzeko xehatua Zumaiako babes guneak eta bertan egiten diren erabilerak antolatzen dituen Arau Subsidiarioekin bat dator. Azpimarratu beharra dago Urola Kostaldeko Lurralde Antolaketa Planak 'Nekazaritza intereseko guneak' atalean sailkatzen duela gunea.

- Nekazaritza-abeltzaintza eta landazabal gunea (D.2), Hirigintza Arauetako 3.7.4. atalak antolaturikoa ere (137 eta 138 artikulua). Hiri Antolaketa Arauetan kategoriatan hori tratatzeko irizpidea *"(...) lurzoruen ahalmen agrologikoa iraunaraztean datza, baita nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak eta, horiekin bateragarriak izanik, ekosistemen eta nekazaritza paisaien babesa ziurtatzen duten bestelako jarduerak iraunaraztean ere. Hala eta guztiz ere, gainerako erabilera onargarriek, basogintza erabilerak barne, nekazaritza eta abeltzaintzako erabileren mende egon beharko dute. Arreta berezia jarri beharko da balio agrologiko handiko lurzorua okupatzen duten eraikuntza prozesuak eta azpiegiturak ezartzekoak kontrolatzeko, baita nekazaritza zonak zatikatu eta gune isolatu bihurtzen dituzten prozesuak kontrolatzeko ere, bertan burutzen diren jardueretarako ondorio kaltegarriak ekarri ohi dituzte eta".*

Gune horretan *"(...) Nekazaritza eta abeltzaintzako jarduera guztiak bultzatuko dira, batez ere nekazaritza ustiapenaren intentsitatea areagotuko dutenak. Jarduera onargarrien artean (...) Kontserbazioa, ingurumenaren hobekuntza eta jolas jarduera estentsiboak inolako*

mugarik gabe onartzen dira. Jarduera hauek, berriz, garapen plangintzaren xedapenen arabera onartuko dira: jolas jarduera intentsiboak, ehiza eta arrantza jarduerak, negutegiak, basogintza erabilerak, nekazaritza industriak, erauzketa jarduerak, garraiobideak, airetiko lineak, lurpeko lineak, A motako zerbitzu lineal ez diren instalazio teknikoak, B motako zerbitzu lineal ez diren instalazio teknikoak, nekazaritza jarduerari lotutako egoitza erabilera isolatua, herri onurako eta gizarte intereseko eraikuntzak eta instalazio arriskutsuak". Debekaturik daude, "Irizpide orokorrek diren jarduerak eta, bereziki, arau honetan definitzen direnaren arabera, hirigintza hazkundeak eta nekazaritza ustategiari lotu gabeko egoitza erabilera isolatua".

Hiri Antolaketa Arauak Nekazaritza-Abeltzaintza eremuaren barruan 'Natura Intereseko gune' gisa bi azpieroemue zehazten ditu. A.I.N.2 azpieroemuek Santixo hondartza eta inguruko guneak, Santixo-Meagas eta Bedua-Artadiko korridoreak, hartzen ditu. Azpi eremu horretarako Plan Berezia idazten ez den bitartean, "azpi zonaren esparruan ezingo dira ezarri nekazaritza eta abeltzaintzako zonarako baimenduta dagoen erabilerarik edo jarduerarik, baldin eta eraikin egonkorak, zuhaitz autoktonoen mozketak edo lurraren eraketa naturalaren transformazioa badakarte berekin".

Oraingo Plan Berezia antolatutako eremuaren parte diren Sistema Orokorak barneratu ditu ondorengo guneetan:

- **Nekazaritza intereseko gunea:** Oikiako erriberak (ezker aldea), Soburutzaldea eta Dornutegi (eskuin aldea) ibarretako ibai ondoko lurzoruak. Ibai-sistemarekin harreman estua duten eremuak dira eta, kasu gehienetan, %10tik gorako urteko uholde-maiztasuna dute (Hamar urteko itzulera-aldiko uholdeek hartutako guneak). "Lur azalera honetan ibaiaren ahalmen hidraulikoa eta ibai ekosistema mantentzearekin eta gozamenarekin erlaziorik ez duen edozein hirigintza erabilera baztertuko da. Ibai ertzetan burututako jardueren helburua, erreka zati horren egoera ekologiko egokia lortzea edo mantentzea izango da". [Lurren erabilera erregimena uholde arriskuaren arabera. Ur Agentzia]. Gainerako guneek uholde arrisku txikiagoa dute, nahiz eta ehun eta bostehun urteko itzulera-aldiko uholdeek padura zati batzuk eragin ditzaketen (uholderik izateko probabilitatea %1 eta %10 bitartekoa da urtean).
- **Babes Berezi Zorrotzeko guneak:** Dornutegiko artadiak.
- **Babes Berezi Bateragarriko guneak:** azalera malkartsuetan eta higadura handiko guneetan (Torre-Dornutegi) dauden baso naturalak babesteko guneak, baita haien hedapenerako guneak ere.
- **Paisaia Babesteko guneak:** hauskortasun bisual eta eszenografiko handia duten leku garaiak (Torre).
- **Ekosistemak Hobetzeko guneak:** Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak izendatutako "Lehentasunezko Natura Intereseko" gunearekin bat datorren eremua; bi ibaiertzeko azalera lerroak hartzen ditu.

Oraingo Plan Berezia zonakatzeko xehatua Zumaiaiko nekazaritza-abeltzaintza guneak eta bertan egiten diren erabilerak antolatzen dituen Arau Subsidiarioekin bat dator, jarduera onargarriak eta egokiak proposatzen baititu. Aldi berean, lurralde plangintza nagusiaren arauak errespetatzen ditu eta bereziki, Natura Gune Babestu horren kudeaketa plana ere.

- Komunikabideen Sistema Orokorak Babesteko guneak (D.1.10), Arau Subsidiarioen 3.7.4. atalak eta dagozkion hirigintza fitxek antolatzen dituzte. Hirigintza Arauek, Plan Berezia

parte diren edo horrek antolatutako eremua zeharkatzen duten honako Sistema Orokor hauek barneratzen dituzte:

- 'Urola ibaia' 10. SO
- 'Trenbide sarea' 12. SO
- 'A-8 Autobidea' 13. SO
- 'CN-634 Zumaiaiko saihesbidea' 14. SO
- 'Artadiko parke ingurua' 19. SO

Plan Bereziak antolatutako eremuaren parte diren Sistema Nagusiak barneratu ditu ondorengo guineetan:

- **Komunikazioen Sistema Orokorrak:** lurzorua okupazioan eragina duten komunitate zerbitzuak eta azpiegiturak edo horien handitzeak jasatera xedaturiko guneak. Gune horietan Komunikabideen Sistema Orokorrak sartu dira ('Trenbide sarea' 12. SO, 'A-8 Autobidea' 13. SO, 'CN-634 Zumaiaiko saihesbidea' 14. SO).
- **Ubide nagusia:** ('Urolako itsasadarra' 10. SO) Zubiaundi-Errotagain arteko itsasadarreko ibilgu nagusikoak osaturiko marearteko guneak.
- **Babes Zorrotz Berezia:** padura guneak eta marearteko edo mareaz kanpoko lokatz guneak, landaredunak ala landarerik gabekoak (Usurbirillaga, Basazpia bigarren mailako ibilguak) eta ibilgu nagusitik ezberdintzen direnak.
- **Babes Zorrotz Berezia:** artadi kantauriarrak estalitako eremuak eta haren hedapenerako gune potentzialak ('Artadi parkeko ingurua' 19. SO).

Oraingo Plan Bereziaren zonakatzeko xehatua Zumaiaiko Sistema Orokorrak eta bertan egiten diren erabilerak antolatzen dituen Arau Subsidiarioekin bat dator.

Autobide eta trenbide sareko Sistema Orokorren kasuan, Komunikabideen Sistema Orokorren eremuko erabileren antolaketa indarrean dauden hirigintza fitxetan oinarritzen da.

'Urola ibaia' 10. SOren hirigintza fitxak dioenez, sistema nagusi hori *"Beduako inguruneke babes bereziko lurzoruaen parte izango da"* izango da eta horrela jaso da Plan Bereziaren. Ibilguaren ondoko guneetan baimendutako eta debekatutako erabilerak zehazteko asmoz, Plan Bereziak bi zatitan banatzen du eremua: ubide nagusia eta babes bereziko guneak.

'Artadi parkeko ingurua' 19. SOren hirigintza fitxak ezartzen duen helburu nagusia herritarren aisialdirako guneak antolatzea da. Eraikin apaingarriak eta gune libreen erabilerarako lagungarriak diren eraikin finko edo behin-behinekoak baino ez ditu baimentzen, baita lur azpian eraiki beharreko azpiegiturak ere. Behin-behineko lehenengo mailako merkataritza onartzen da –kioskoak, etab.–, baita zerbitzu-azpiegiturekin eta gunearekin bateragarriak diren ekipamenduen erabilera ere.

Oraingo Plan Bereziak 'Babes Zorrotz Bereziako' eremuan sartzen du sistema nagusi hori, zeinetarako ez baita aisialdirako jarduerarik edo eraikinik (ekipamenduak, zerbitzuak) aurreikusten. Hortaz, Sistema Orokorren barruko eremuan salbuespen neurri bereziak ezarri beharko lirake mota honetako erabilerak eta ekipamenduak antolatzeko.

C) ZESTOA

Zestoako hiri plangintza orokorrak xedatzen duenez, Plan Bereziak antolatzen duen eremua lurzoru urbanizaezin gisa sailkatua dago (A.2 *Diagnostikoaren 2.2.1.3 atala ikusi*), eta 'Ibai eta ibarrak babesteko lurzoria' eta 'Paisaiaren, nekazal inguru eta interes arkeologikoko esparruen lurzoru babestua' kategorien barruan sartzen da. Lehenengo kasua Urola ibaiaren ibilguari dagokio eta bigarrena, berriz, Bedua herriguneko inguruneari.

Azken horri dagokionez, Arau Subsidiarioek herrigunea eta inguruko paisaia mantentzeko eta babesteko helburua ezartzen dute (Araudiaren 147. Artikulua). Leku horietan araudiak debekatzen ditu "(...)daude lurzoru honetan bertako paisaiaren fisionomia aida dezaketen jarduketak, hala nola, pistak irekitzea, lurak mugitzea, zuhaitzak bota edo aldatzea, Udalaren baimen berezia salbu eta Babeserako Plan Bereziak idatzi eta onesten ez diren bitartean".

Plan Bereziak Zestoa udalerriko ondorengo eremuak hartu ditu:

- **Ubide nagusia:** ('Urolaren itsasadarra' 10. SO) Zubiaundi-Errotagain arteko itsasadarren ibilgu nagusiko marearteko gunek.
- **Babes Zorrotz Berezia:** padura gunek eta landarez estalitako edo landarerik gabeko marearteko edo mareaz kanpoko lokatz gunek (itsasadarreko bigarren mailako ibilguak).
- **Ekosistemak hobetzeko gunek:** gaur egun nekazaritzarako erabiltzen diren gunetan (baratzak) padura ekosistemak berrezartzea proposatzen da. Oraindik ohiko jarduerak burutzen diren nekazaritza lursailetan, antolaketa irizpidea jarduerak baimentzea izango da, irizpide nagusiaren baldintzekin bat datorren bitartean.
- **Ekipamenduak:** eraikinak dauden ala eraikinik gabeko jabari publikoko edo pribatuko zonak, arrazoi bereziak direla eta, komunitate ekipamenduak nekazaritza lurretan ezarri behar direnak. Eremu honetan Beduako hotela eta utzitako eraikinak (zementu lantegia eta ontziola) dauden herrigunea sartu da, baita J.M korta industria guneko zubitik sarbidea hobetuko lukeen azalera lerroa bat ere.
- **Nekazaritza intereseko gunek:** uholdeak jasateko arrisku gutxi duten Bedua inguruko lursailak, nahiz eta batzuk hamar, ehun edo bostehun urtean behin izandako uholdeek eragin ditzaketen.

Ez da Zestoako AASSetan ezarritako erabileren antolaketa orokorraren eta oraingo Plan Bereziak proposatzen duen zonakatze xehatuaren artean inongo kontraesanik aurkitu. Aitzitik, araudi hori Babeserako Plan Berezi baten idaztea eta onartzearen mende geratzen da.